

## **Ohar garrantzitsu berria: akreditazio sistema berria**

Legea dela-eta aretoen edukiera murriztu denez, Trinitate plazan bereziki, akreditazio sistema aldatu behar izan dugu.

Jasoko dituzun gonbidapenek ez dute kontzertuetara joateko balio. Benetako sarrerengatik trukatu beharko dituzu kontzertu bakoitzaren egunean, Okendo plazan dagoen Informazio Bulegoan, goizeko 09:00etatik 16:00etara. Bulegoan eskuratutako sarrerekin soilik sartu ahal izango da aretoetara.

Egun ezberdinetako sarrerak ezin izango dira batera, egun berean, eskuratu.

Egun horretako kontzertuetarako sarrerak soilik jaso ahal izango dituzu.

Orain arte Kursaal Auditorioko kontzertuetako sarrerak eskuratzeko erabilitako antzeko prozedura izango da. Barkatu eragozpenak, baina hala jokatu behar dugu ezinbestean. Eskerrik asko zure laguntzagatik.

Heineken Jazzaldiko Prentsa Bulegoa